ALHAO
ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN **ALDIZKARI OFIZIALA**
2015eko abenduaren 2a, asteazkena • 141 zk.

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## BIASTERI-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

**Arkitektoak egindako hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua kontratatzeko lehiaketa, prozedura irekiaren eta ohikoaren bidez**

1. Erakunde esleitzailea: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla.

2. Lehiaketaren helburua: arkitektoaren hirigintza-aholkularitzarako zerbitzua.

3. Loteak:

1. lotea: Gauzatzea Laguardian, Samaniegon, Navaridasen, Eskuernagan eta Lezan.

2. lotea: Gauzatzea Lapuebla de Labarcan, Bilarren, Lantziegon, Kripanen eta Iekoran.

3. lotea: Gauzatzea Oyón-Oionen, Mañuetan, Moreda Araban eta Elciegon.

4. Izapidetzea, prozedura eta esleitzeko era:

a) Izapidetzea: ohikoa.

b) Prozedura: irekia.

c) Esleitzeko era: lehiaketa.

5. Lizitaziorako oinarrizko aurrekontua: gehienezko lizitazio oinarria 30,00 euro ordukoa izango da (hogeita hamar euro), loteko, BEZik gabe.

6. Kontratuaren iraupena: urte bat; gehienez ere bost urtera arte luzatu ahal izango da.

7. Kontratistaren berariazko betebeharrak: ekonomia eta finantza arloko kaudimena eta gaitasun teknikoa eta profesionala; betebehar horiek baldintza ekonomiko-administratiboen agirian jasota dauden bezala egiaztatuko dira.

8. Espedientea aztertzea eta dokumentazioa eta argibideak eskuratzea:

a) Erakundea: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla.

b) Helbidea: Gasteiz errepidea, 2.

c) Herria eta posta kodea: Laguardia, 01300

d) Telefonoa: 945600252.

e) Faxa: 945621065.

f) Ordutegia: astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik arratsaldeko 14: 30era.

g) Agiriak eta argibideak jasotzeko azken eguna: proposamenak aurkezteko epea bukatzen den eguna.

9. Eskaintzak aurkeztea:

a) Epea: hamabost egun, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.

b) Aurkeztu beharrekoak: Ikus baldintza-agiria.

c) Non aurkeztu:


L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432

Erakundea: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrilla

Helbidea: Gasteiz errepidea, 2

Herria: 01300 Laguardia (Araba)

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 9etatik 14etara.

10. Eskaintzarako eredua: proposamenek baldintza administratiboen agirian adierazitako eredura egokitu beharko dute, eta bertan zehazten den dokumentazioarekin batera aurkeztu beharko dira.

11. Proposamenak irekitzea: Biasteri-Arabako Errioxako Kuadrillaren iragarki-taulan adieraziko da zein izango den egun hori, eskaintzak aurkezteko azken egunean.

12. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

13. Agiriak ondorengo web orrian eskuratu daitezke: www.rioja-alavesa.es

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Laguardia, 2015eko azaroaren 19a

*Presidentea*
*JOSEBA FERNANDEZ CALLEJA*



L.G.: VI-1/1958 ISSN: 2254-8432



Firmante: CN=DIRECCION DE SERVICIOS GENERALES, SERIALNUMBER=P0100000I, OU=sello electrónico, OU=ZIURTAGIRI ONARTUA - CERTIFICADO RECONOCIDO, O=ARABAKO FORU ALDUNDIA-DIPUTACION FORAL DE ALAVA, C=ES
Emisor del certificado: CN=EAEko HAetako langileen CA - CA personal de AAPP vascas (2), OU=AZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCA, O=IZENPE S.A., C=ES
Número de serie: 108817
Fecha de firma: 2015.12.02 06:46:26 Z